



2022/2023AN DONOSTIAKO GABONETAKO MERKATUAN SALMENTA-JARDUERA GAUZATZEKO NAHITAEZKO BAIMENEN FUNTZIONAMENDUA ETA BAIMENEN EMATEA ARAUTZEKO OINARRIAK

AURKIBIDEA:

1. HELBURUA	2. or.
2. GABONETAKO MERKATUAREN ETA KOKALEKUAREN EZAUGARRIAK	2. or.
3. ALOKAIUAREN ETA USTIAPENAREN BALDINTZAK	7. or.
4. GABONETAKO ONLINE MERKATUA	10. or.
5. ENTITATE ERAKUSKETARIEN BALDINTZAK	11. or.
6. ESKABIDEAK, EPEA ETA AURKEZPENA	12. or.
7. ESKABIDEEN AKATSAK ZUZENTZEA	13. or.
8. ESKABIDEEN PROZEDURA ETA BALORAZIOA	14. or.
9. ERAKUSKETARIEN BETEBEHARRAK	17. or.
10. KONTRATUAREN SUNTSIARAZPENA	19. or.
11. DATUEN BABESA	20. or.
12. AZKEN XEDAPENA	21. or.
13. ERANSKINAK	



1. HELBURUA.

2022ko azaroaren 25etik 2023ko urtarrilaren 6ra bitartean (biak barne) Donostiako Gabonetako Merkatuak hartzen dituen espazioetan kokatu beharreko etxolen esleipena arautu behar duten baldintzak finkatzea da honako oinarri hauen helburua.

2. GABONETAKO MERKATUAREN ETA KOKALEKUAREN EZAUGARRIAK

Donostiako Gabonetako Merkatua erreferente bihurtu da penintsulako iparraldean, eta bere kokapen estrategikoagatik hemengo, estatuko eta nazioarteko bisitarien arreta erakarri du. Egindako ahaleginaren eta ahalmenaren aitopene gisa, hiria "**Gabonetako Europar Hiriburu**" izendatu dute 2022ko edizioan.

Aintzatespen horrek, hiriak azken urteotan egindako lana baliozkotu du; izan ere, Gabonetako Merkatuaren irudia eta estatusa, Gabonetako kale argiztapena eta Gabonetako jaien barruan antolatzen diren ikuskizunak indartu baititu. Gainera, horri esker, gero eta jende gehiagok izango du gure hirira etortzeko interesa, erosketak Urumea ibaian zehar egiteko edo Gabonetan egiten diren argiztapen eta soinu ikuskizunez gozatzeko.

Horregatik guztiagatik, Donostia Sustapenerako —Donostiako Gabonak antolatzen dituen erakunderako— edizio hau bi aldiz berezia da. Alde batetik, Gabonetako Europar Hiriburuaren sariari esker, eta bestetik, pandemiarik gabeko murrizketarik gabeko agertokia berreskuratzeari esker, aisialdiko agenda, erakusketak eta atrakzioak berreskuratu ahal izango dira txikientzako, eta horrela, Gabonetako Merkatuaren indarra eta protagonismoa ere berreskuratu ahal izango dira, bai Urumea pasealekuan bai Ramon Labayen plazan.

Arreko guztia kontuan hartuta, Donostia Sustapenak Urumea pasealekuan eta Ramon Labayen plazan etxolen kopurua handitzea erabaki du, eskaintza modu koordinatuan handitzeko eta gure hiria bisitatzen duten pertsona guztiak harrituta uzten jarraitzeko.

Beraz, merkatua 56 etxolak eta 4 food truckek osatuko dute, gutxi gorabehera. Tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko erakusketariak etxola guztiak eskatu ahal izango dituzte. Food truckak eskatzaileak ekarri beharko ditu.

Aurrekoa gorabehera, Donostia Sustapenak salmenta-postu batzuk erreserbatzeko aukera aurreikusten du Gipuzkoan kokatutako eta legez eraturako GKEentzat, fundazioentzat eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuentzat, bai eta hirirako interesgarriak izan daitezkeen beste ekimen batzuentzat ere. Horrez gain, elikaduraren arloko nazioarteko erakusketariak eta txandakako etxoletan parte har lezaketen produktu berritzaileak erakartzeko ahalegina ere sustatuko da.



Etxola hauekin batera, herritarrek erabili ahal izango dituzten hainbat elementu jarriko dira (karpak eta festetako barrakak), gune hau Gabonetako topagune bihurtzeko.

Hautatutako erakusketariaren aldeko ebazpenak Gabonetako merkatuan bi modutara parte hartzeko aukera ematen du: formatu klasikoan (fisikoan) parte hartzeko aukera eta Gabonetako Online Merkatuan zuzenean parte hartzeko aukera.

Berezko gaia kontuan hartuta, Gabonetako produktuak edo Gabonetan saldu ohi diren produktuak eskainiko dituzten postuak instalatzera bideratuta dago merkatua, jarraian zerrendatzen diren gune edo talde hauekako bakoitzean:

- ❖ I. TALDEA: **Gabonetako elikagai tipikoak**: Gabonetako produktuak, sasoiko produktuak, gozokiak, pastelgintza eta gozogintza, kontserba hautatuak, fruitu lehorrak, etab.
- ❖ II. TALDEA: **Gabonetako haur jostailuak eta opariak**: Gabonetako haur eta jolas artikuluak (jostailuak, eskulanak, liburuak eta ipuinak, etab.).
- ❖ III. TALDEA: **Gabonetako eskulangintza eta oparigintza-artikuluak**: artisautza, dekorazioa, bisuteria, moda (batez ere Gabonetakoa: txanoak, eskularruak, e.a.), zeramika, urregintza, margolaritza, Gabonetako musika tresna tipikoak, etab.
- ❖ IV. TALDEA: **Gabonetako dekorazioa**: Jaiotza tradizionalarekin lotutako artikuluak, ohiko irudiak eta osagarriak, Gabonetako tresneria, argiak, girlandak, Gabonetako dekorazioa eta apaingarriak, Gabonetako loregintza, etab.

2.1. Etxola motak eta bakoitzaren ezaugarriak

Aurreko paragrafoan aipatutako produktuak saltzeko erabiliko diren etxolak Donostia Sustapenak jarriko ditu aukeratutako erakusketarien esku. Eskainiko diren etxolen artean, 2 mota bereiziko dira (etxola txikiak eta etxola handiak), ondoren deskribatzen diren ezaugarriekin:

2.1.1. Etxola txikiak:

- Neurriak: 3x2 metro (6 m²). Alboko altuera, 205 cm. Altuera zentrala, 270 cm.
- Materiala: zura.
- Berriki eraikitako etxola aurrefabrikatuak. Honela ekipatuta egongo dira:
 - Aurretiko irekiera, erakusmahai eta leihatila baskulatzailerekin (sistema hidraulikoa eta morroiloa).



- Egurrezko ate trinkoa (sarrailarekin atzealdean), egurrezko zorua, eta okumezko taula batekin babestutako sabaia.
- Alboko erakusmahaia (jar daiteke ala ez, aukeran).
- Aurreko erakusmahaia (jar daiteke ala ez, aukeran).
- Alboko bi irekiera, erakusmahai eta leihatila baskulatzailarekin (sistema hidraulikoa eta morroiloa).
- Salgaiak jartzeko hiru apal.
- Kanpoko argiztapena.
- Errotulu komertziala.
- Koadro elektrikoa (1200 w-ko diferentziala eta hiru entxufe).

2.1.2. Etxola handiak:

Mota horretako etxolak Urumea Plazaren barruan kokatuko dira, eta ahal den kopuruan eta lehentasunez, I. Multzorako erabiliko dira ("Gabonetako Elikagai Tipikoak" multzorako).

- Neurriak: 4x2 metro (8 m²). Alboko altuera, 205 cm. Altuera zentrala, 270 cm.
- Materiala: zura.
- Berriki eraikitako etxola aurrefabrikatuak, ezaugarri hauekin:
 - Aurretiko irekiera, erakusmahai eta leihatila baskulatzailarekin (sistema hidraulikoa eta morroiloa).
 - Egurrezko ate trinkoa (sarrailarekin atzealdean), egurrezko zorua, eta okumezko taula batekin babestutako sabaia.
 - Goiko erakusmahaia (jar daiteke ala ez, aukeran).
 - Aurreko salmahaia (jar daiteke ala ez, aukeran).
 - Alboko bi irekiera, erakusmahai eta leihatila baskulatzailarekin (sistema hidraulikoa eta morroiloa).
 - Salgaiak jartzeko sei apal.
 - Kanpoko argiztapena.
 - Errotulu komertziala.
 - Koadro elektrikoa (diferentziala eta hiru entxufe).



II. Eranskinean, etxolen xehetasun teknikoa jasota dago.

Etxolen kanpoko dekorazioa (txikienena zein handienena) Donostia Sustapenak egingo du; era berean, etxolak modu homogeneoan girotzeaz ere arduratuko da, estetika komun bati eusteko. Etxolaren kanpoaldean Donostia Sustapenak identifikazio errotulu bat jarriko du parte hartzaile bakoitzaren izen komertzialarekin. Barruko dekorazioa okupatzailearen kontura izango da, eta Donostia Sustapenak ezarriko dituen eta erakusketari aukeratu bakoitzari behar bezala jakinaraziko dizkion dekorazio ohar orokorrak bete beharko ditu.

Merkatuak honako zerbitzu hauek izango ditu: sare elektrikoa eta ura, komun publikoak, segurtasuneko langileak, eta, arretarako eta merkatuko jarduerak koordinatzeko langileak. Zerbitzu hauen kostua etxolaren edo food truckaren prezioaren barruan sartuta dago.

2.2 Elikagaiak manipulatzeko diren etxolak:

Zurezko etxolen kasuan, Donostiako Gabonetako Merkatuari buruzko osasun jarraibideek honako hau zehazten dute arau orokor gisa:

- Catering jarduerarako berariazko baimenik ez duten ostalaritzako establezimenduetan, ezin izango da zerotik produkturik egin, ezta kozinatutako edo aurrez prestatutako elikagairik merkaturatu ere.
- Ezinbestekoa da produktuen osasun erregistroa izatea (berarena edo hornitzailearena); halaber, beharrezkoa da elikagaiak merkaturatzeko, elaboratzeko edo/eta eskuragarri jartzeko legez ezarritako beste edozein lizentzia edo baimen izatea.
- Elaborazio sinpleak egin ahal izango dira (adibidez: krepeak, taloak, garrapiñatuak, txokolate beroa, ogitartekoak, etab.).
- Dagokion osasun erregistroa duten elikagaiak bakarrik merkaturatu ahal izango dira.

Nolanahi ere, elikagaiak saltzea edo manipulatzeko barne hartzen duen edozein proposamen Donostiako Udaleko osasun sailak baimendu beharko du. Horretarako, eskatzaileek aurkeztutako dokumentazio guztia helaraziko du Donostia Sustapenak, eta aipatutako udal sailak erabakitakoa beteko da.

Food trucken kasuan, baimenduta daukaten jarduera gauzatu ahal izango da.

Indarrean dagoen osasun araudia betez, nahitaezkoa izango da janari manipulazioaren bat egiten duten etxola guztietan konketa bat izatea. Konketa hau erakusketariak berak instalatu ahal izango du, eta horretarako ezarritako baldintzak eta arauak bete beharko ditu; era berean, erakusketariaren eskariz, Donostia Sustapenak konketa bat instalatu ahal izango dio, 240,00 euroko kostu gehigarriarekin (BEZa barne).



Donostia Sustapenak eskaintzen duen eta erakusketarien eskura jar dezakeen konketak elementu hauek ditu: sistema eramangarri bat, 10 litroko bi bidoi eta akzio bikoitzeko pedal bat.

Jarduera garatzeko ura nahitaez erabili behar dela araudiak dioenean, bai beste edozein arrazoiengatik hala eskatzen denean, zerbitzu hau berdin-berdin eskainiko da.

Osasun araudia, baimenak eta abar ez betetzeak ekar ditzakeen zehapenak eta bestelako erantzukizunak (zuzenekoak zein zeharkakoak izan) oso-osorik hartuko ditu bere gain erakusketariak eta, beraz, Donostia Sustapenak ez du zentzu horretan inolako erantzukizunik izango.

Etxolak batzea:

Erakusketariren batek etxola komertzial handiagoa nahi balu, etxola-ereduak bi etxola batzeko aukera ematen du (barruko espazioa osorik erabiltzeko moduan geratzen da). Aukera hau bakarrik eskaintzen da etxola-eskaera aldi osorako denean; eta, edozein kasutan, erakusketariak ordaindu beharreko 150,00 euroko kostu gehigarria izango du (BEZa barne).

Euskara Normalizatzeko Legea betetzea:

Udalean eta Donostiako Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko ezarritako arauak bete beharko dituzte hautatutako erakusketariak; hori dela eta, kartel eta komunikazio euskarri guztiak euskaraz edo, hala badagokio, euskaraz eta gaztelaniaz jarri behar dira. Horretarako, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza izango dute.

2.3. Kokalekua.

Gabonetako Azoka hiriaren erdialdean zehar zabalduko da. Etxolak eta food truckak Urumea pasealekuan kokatuko dira gehienbat (Santa Katalina zubiaren eta M^a Cristina zubiaren arteko zatian), bai eta Urumea plazan, Ramon Labayen plazan eta inguruetan ere.

4x2 m-ko etxolak Urumea plazan kokatuko dira, euren tamaina dela eta. Food truckak Urumea Plazan, Ramón Labayen Plazan eta Alderdi Eder inguruan jarri ahal izango dira. Nolanahi ere, kokalekuak antolatzeke beharren edo/eta baimenen arabera, espazio aukeratuetakoz edozein aldatzeko eskubidea izango du Donostia Sustapenak.

Gabonetako Merkatua antolatzen den lekuak aldatzeko edota handitzeko eskubidea izango du Donostia Sustapenak, eta gainera, Gabonetako Merkatua egiteko bide publikoa okupatzean ezustekorik sortuz gero, azokaren kokapena aldatu ahal izango du; nolanahi ere, bisitari asko biltzen diren hiriko erdiguneko espazio batean kokatuko da beti.



Etxolen eta food trucken behin betiko kokapena Donostia Sustapenak zehaztuko du, Gabonetako Kanpaina hasi baino gutxienez 10 egun lehenago. Kokalekuak irizpide hauek izango ditu oinarri, besteak beste: kategoria bakoitzean lortutako puntuazioa, eta, mix komertzialaren banaketa.

3. ALOKAIUAREN ETA USTIAPENAREN BALDINTZAK

Jarraian, erakusketari guztiek uneoro eta Gabonetako Merkatua zabalik dagoen bitarte osoan bete beharko dituzten baldintzak eta eskakizunak zehazten dira:

Egutegia eta ordutegia:

Egiten duten jarduera kontuan hartuta, egutegi, ordutegi eta tarifa bereziak ezartzen dira etxoletarako eta food trucketarako:

3.1 ETXOLAK:

Etxolak egunero egon beharko dira zabalik, 2022ko azaroaren 25etik 2023ko urtarrilaren 6ra arte; ezin izango dira egun horietako bakar batean ere itxi, arrazoi justifikaturik ez badago eta Donostia Sustapenak behar bezala baimenduta ez badago.

Zabalik egoteko ordutegia honako hau izango da:

Lanegunak:

- Etxolen ordutegi tartea: 11:00etatik 21:00etara.
- Etxolak nahitaez irekitzeko ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:00etara.

Jaiegunak eta jai bezperak:

- Etxolen ordutegi tartea: 11:00etatik 22:00etara.
- Etxolak nahitaez irekitzeko ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 20:30etara.

Aurreko ordutegien salbuespenak:

- Gabon eguna (abenduak 24) eta Urtezahar eguna (abenduak 31): ixteko ordua 19:00etara aurreratuko da.
- Eguberri eguna (abenduak 25) eta Urteberri eguna (urtarrilak 1): etxolak itxita egon daitezke edo/eta Merkatua irekitzeko eta ixteko ordutegia aldatu ahal izango da, erakusketarien eta Donostia Sustapenaren artean lortutako akordio baten bidez. Hala eta guztiz ere, erakusketariak honako konpromiso hau hartzen dute: haietako % 50 gutxienez prest egongo dela etxolak irekitzeko, Gabonetako Merkatua egun horietan aktibo egon dadin. Horretarako, kontsulta bat egingo da, interesa duten erakusketariak etxola ireki dezaten; eta, % 50era iristen ez bada, zozketa bat egingo da, zein erakusketarik ireki behar duten zehazteko. Irekitzeko betebeharra bete ezean, erakusketariak etxola



ustiatzeko eskubidea eta Merkatuan parte hartzeko eskubidea galdu ahal izango ditu; gainera, Donostia Sustapenak eskubidea izango du oinarri hauetako 10. artikuluan jasotako zigorrak aplikatzeko.

Era berean, eta izaera orokorrez, erakusketari guztiei jakinarazi ondoren, Donostia Sustapenak aurreko paragrafoetan ezarritako ordutegiak aldatzeko eskubidea izango du, eta ezohiko edo ezinbesteko edozein egoeraren aurrean (esaterako, fenomeno klimatologikoen edo/eta Covid-19aren ondorioen aurrean), Donostia Sustapenak, dagokion agintarien jarraibideei kasu eginez, behar diren aldaketak egin ahal izango ditu arlo teknikoan, antolamenduan edo ordutegietan, egoera berezi bakoitza kontuan hartuta.

- Justifikatutako arrazoi objektiborik gabe edozein erakusketarik egutegia eta ordutegia behin eta berriz ez betetzeak etxola ustiatzeko eskubidea eta, horrenbestez, merkatuan parte hartzeko eskubidea galtzea ekar ditzake; gainera, Donostia Sustapenak eskubidea izango du oinarri hauetako 10. artikuluan jasotako zigorrak aplikatzeko.

Etxola alokatzeagatiko prezioa (ikus I. Eranskina):

Donostia Sustapenak hiriaren garapen ekonomikoaren alde egiten du; horregatik, aurreko urteetan bezala, erakusketariak Gabonetako merkatuan parte hartzea diruz lagunduko du. Hori dela eta, etxolaren kostuaren zati bat bere gain hartuko du (ikus I. Eranskinean etxola instalatzeagatiko kostu ekonomikoen xehetasuna).

Donostia Sustapenaren dirulaguntza aplikatu ondoren, erakusketarientzako prezioak ondokoak dira.

Etxola aldi osorako edo hamabostaldika alokatzeko aukera ematen da.

A) Aldi osorako prezioa (2022ko azaroaren 25etik 2023ko urtarrilaren 6ra):

- Etxola txikiak: 1.694 euro (BEZa barne)
- Etxola handiak: 2.480,50 euro (BEZa barne)

B) 3 asteko aldi baterako prezioa Bi aldi ezarri dira:

Lehenengo aldia: 2022ko azaroaren 25etik 2022ko abenduaren 16ra

Bigarren aldia: 2022ko abenduaren 17tik 2023ko urtarrilaren 6ra

- Etxola txikiak: 895,40 euro (BEZa barne)
- Etxola handiak: 1.294,70 euro (BEZa barne)

Konketa instalatzeko eskaera egiten duten erakusketarien kasuan, prezio horri 242,00 euro gehituko zaizkio (BEZa barne); eta bi etxola batzea eskatzen dutenen kasuan, 150,00 euro gehiago (BEZa barne).



3.2 FOOD TRUCKAK:

Etxolak egunero egon beharko dira zabalik, 2022ko azaroaren 25etik 2023ko urtarrilaren 6ra arte; ezin izango dira egun horietako bakar batean ere itxi, arrazoi justifikaturik ez badago eta Donostia Sustapenak behar bezala baimenduta ez badago.

Zabalik egoteko ordutegia honako hau izango da:

Lanegunak:

- Food trucken ordutegi tartea: 11:00etatik 21:30etara
- Food truckak nahitaez irekitzeko ordutegia: 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etatik 20:30etara.

Jaiegunak eta jai-bezperak:

- Food trucken ordutegi tartea: 11:00etatik 22:30etara
- Food truckak nahitaez irekitzeko ordutegia: 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etatik 20:30etara.

Aurreko ordutegien salbuespenak:

- Gabon-eguna (abenduak 24) eta Urtezahar-eguna (abenduak 31): ixteko ordua 19:00etara aurreratuko da.
- Eguberri eguna (abenduak 25) eta Urteberri eguna (urtarrilak 1): bi egun horietan Food truckak itxita egon daitezke edo/eta Merkatua irekitzeko eta ixteko ordutegia aldatu ahal izango da, Food truck erakusketarien eta Donostia Sustapenaren artean lortutako akordio baten bidez. Aurrekoa gorabehera, Food truck erakusketariek konpromiso hau hartzen dute: haietako % 50 gutxienez prest egongo dela Food truckak irekitzeko, Gabonetako Merkatua egun horietan aktibo egon dadin. Horretarako, kontsulta bat egingo da, interesa duten erakusketariek euren Food trucka ireki dezaten.

Era berean, eta izaera orokorrez, Food truck erakusketari guztiei jakinarazi ondoren, Donostia Sustapenak aurreko paragrafoetan ezarritako ordutegiak aldatzeko eskubidea izango du, eta ezohiko edo ezinbesteko edozein egoeraren aurrean (esaterako, fenomeno klimatologikoen edo/eta Covid-19aren ondorioen aurrean), Donostia Sustapenak, dagokion agintarien jarraibideei jarraituz, behar diren aldaketak egin ahal izango ditu arlo teknikoan, antolamenduan edo ordutegietan, egoera berezi bakoitza kontuan hartuta.

- Justifikatutako arrazoi objektiborik gabe edozein Food truck erakusketarik egutegia eta ordutegia behin eta berriz ez betetzeak Food trucka ustiatzeko eskubidea eta, ondorioz, merkatuan parte hartzeko eskubidea galtzea ekar dezake; gainera, Donostia Sustapenak eskubidea izango du oinarri hauetako 10. artikuluan jasotako zigorrak aplikatzeko.

Food trucken espazioa alokatzeko prezioa:



Donostia Sustapenak hiriaren garapen ekonomikoaren alde egiten du; horregatik, aurreko urteetan bezala, erakusketariak Gabonetako merkatuan parte hartzea diruz lagunduko du. Hori dela eta, Food truckaren kostuaren zati bat bere gain hartuko du.

Donostia Sustapenaren dirulaguntza aplikatu ondoren, Food trucken prezioak ondokoak dira.

Etxola aldi osorako edo asteka alokatzeko aukera ematen da.

A) Aldi osorako prezioa (2022ko azaroaren 25etik 2023ko urtarrilaren 6ra): 2.480,50 euro (BEZa barne)

B) Aste osorako prezioa: 650 euro (BEZa barne)

3.3 BALDINTZA KOMUNAK

200,00 euroko fidantza ezartzen da etxola bakoitzeko eta Food truck bakoitzeko, bertan edo okupatutako espazioak sor litezkeen kalteak ordaintzeko, beti ere kalte horiek etxolako eta Food truckeko okupatzaileari egotzi ahal bazaizkio. Fidantza itzultzeko, etxolaren eta espazio okupatuaren kontserbazio egoera ona dela egiaztatzen duen txosten teknikoa beharko da.

Merkaturatu beharreko produktu edo produktuen salmentari aplikatu beharreko araudian ezarritako betekizun, betebehar eta baldintza guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dute etxolen erakusketariak eta Food trucken erakusketariak; halaber, edozein erakusketariri aplika dakizkiokeen lan eta zerga betebehar guztiak betetzeko konpromisoa ere hartzen dute.

Etxola bat edo Food truck bat kokatzeko espazioa alokatu ahal izateko, kontratu bat sinatu beharko dute Donostia Sustapenak eta onuradunak (ahaldun batek ordezkaturako pertsona fisiko edo juridikoak).

Prezio osoa kontratua sinatu aurretik ordainduko da, eta, beti ere, urrian zehar (Donostia Sustapenak adierazitako banku kontura egin beharreko transferentzia bidez). Etxolen eta Food trucken erakusketariak, Donostia Sustapenak ezarritako epeetan prezioa ordaintzen ez badute, Donostiako Gabonetako Merkatuan parte hartzeko eskubidea galduko dute aurtengo edizioan.

4. GABONETAKO ONLINE MERKATUA

Formatu klasikoan (formatu fisikoan) garatu beharreko Gabonetako Merkatuarekin batera, Donostia Sustapenak Gabonetako Online Merkatu bat antolatuko du, hautatutako erakusketariei salmenta-kanal berri bat eskaintzeko. Donostia Sustapenaren jabetzakoa den Donostia Market Plaza plataformaren bidez, bertan parte hartu nahi duten saltokiek kontsumitzaileari zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko aukera izango dute, beren erosketen esperientzia pertsonalizatu ahal izan dezaten.



Ildo horretan, Gabonetako Merkatuaren aurreko edizioan bezala, Donostia Sustapenak gune birtual bat abiaraziko du DSS Market Plaza plataforma digitalean; DSS merkatu online honetan parte hartu nahi duten saltokiek Gabonetako kanpainaren barruan merkaturatu ahal izango dituzte beren produktuak.

Nolanahi ere, aipatu plataforman erakusketariak berak kudeatuko du bere online espazioa, eta bere produktuak aukeratu, fotografiatu, editatu eta webgunera igotzeaz arduratuko da.

Donostia Sustapenak salmenta sustatzeko pizgarriak eskainiko ditu DSS Market Plaza plataforma digitalaren bidez, eta bertan parte hartzea arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratuko ditu.

5. ENTITATE ERAKUSKETARIEN BALDINTZAK

Alokairuaren onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nazionalak zein atzerritarrak, bai eta aurrekoen nortasuna ez duten elkarteak ere (betiere ordenamendu juridikoaren arabera balio osoz eratuta badaude eta oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte). Hortik kanpo geratzen dira ondare sozietateak (2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan, urtarrilaren 17koan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzkoan ezarritakoaren arabera definituak).

Ezin izango zaie etxola baten alokairua esleitu: sektore publikoarekin kontratatzeko debekuren baten eraginpean dauden pertsona fisiko edo juridikoei; Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Donostiako Udalarekin ordainketak egunean ez dituztenei; edota horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean daudenei, ezta sexu ziozko bereizkeria egiteagatik zigortutakoei ere, Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera. Baldintza hau betetzeko, etxolen edo/eta Food trucken erakusketari gisa parte hartu nahi dutenek zinpeko aitorten bat aurkeztu beharko dute, baldintza horiek guztiak betetzen dituztela eta eguneratuta dituztela adieraziz.

Halaber, eskatzaileek (eta beren erantzukizun osoaren pean), eskaintzen diren prestazioak gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza izan beharko dute enpresa gisa edo lanbidedun gisa.

Oinarri hauetan araututako alokairuen onuradun guztiek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Kontratua sinatzen den unean dagokion erregimenean autonomo/enpresa gisa alta emanda egotea. Eskaera egiteko unean alta emanda ez badago, Gizarte Segurantzaren araubidean alta emateko konpromisoa erakutsi beharko du, baita kontratua formalizatu aurretik dagokion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta hartu ere. Langileak izanez gero, afiliatu eta altan eman beharko ditu, dagozkien lan eta zerga betebeharrak guztiak betez.
- b) Donostia Sustapenarekin, Ogasunarekin edota Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea.



- c) Kontratua sinatzen den unean, etxolen eta Food trucken erakusketari bakoitzak jarduera garatzeko eskatu beharreko baimen eta lizentzia guztiak edukitzea.
- d) Kontratua sinatzen den unean, gutxienez 150.000 euroko Erantzukizun Zibileko aseguru bat izatea, kontratua indarrean den bitartean jardueratik erator daitezkeen erantzukizunak estaltzeko.

6. ESKABIDEAK, EPEA ETA AURKEZPENEA.

Oinarriak Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko dira: www.donostiagabonetakoazoka.eus eta www.fomentosansebastian.eus.

Eskaera bat aurkeztuko da interesa duen pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko, informazio hauek adierazita: produktu-mota eta, hala badagokio, intereseko txabolen edo Food trucken kopurua, eta horien okupazio maila.

Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) **argitaratu eta hurrengo egunetik 2022ko irailaren 12ko 24:00ak artekoa** izango da. Donostiako Sustapenak eskabideak aurkezteko epea luzatzeko eskubidea izango du. Eskaerak telematikoki aurkeztuko dira Donostia Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus), bertan ezarrita dauden eskakizunen arabera.

Gorabeheraren bat sortzen bada, Donostia Sustapenarekin jarri behar da harremanetan, hark izapidetzeko modua zehaztu ahal izan dezan. Argibiderik edo kontsultarik behar izanez gero, 943 482800 telefonora edo fomentoss@donostia.eus helbidera jo behar da, erreferentzia gisa honako hau adieraziz: Gabonetako Merkatua.

Gabonetako Merkatuan etxolen edo Food trucken erakusketari gisa izena emateko eskabideak honako agiri hauek eduki beharko ditu gutxienez:

- ❖ Eskabidearen eranskina (sinadura elektronikoa behar da).
- ❖ Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANaren kopia.
- ❖ Pertsona juridikoa bada, eskatzailearen kopia eta, hala badagokio, sinatzailearen NANA eta ahalak.
- ❖ Enpresa oraindik eratu gabe badago, enpresa eratzeko berariazko borondatea adierazi beharko da (eskabidearen eranskina).
- ❖ **I. Taldeko (Gabonetako Elikagai Tipikoak)** hautagaien kasuan, aurrekoez gain, honako hauek aurkeztu beharko dira:
 - Erantzukizunpeko adierazpena, higiene eta osasun arriskuak onartzen dituen (dokumentua deskargatu).



- Produktu bakoitzaren osasun erregistroa. Ekoizleak bere jarduera garatzen duen herritik kanpo produktua merkaturatu ahal izateko eta, nolanahi ere, gure hirian hura merkaturatu ahal izateko, Osasun Erregistroak baliozkoa izan beharko du. Tokiko balioa soilik duen erregistrorik ez da onartuko. (eskabidearen eranskinean dago)
 - ❖ Food trucken kasuan, zehazki, honako hauek ere erantsi beharko dituzte:
 - Funtzionamendurako osasun baimena. Hala badagokio, "gastrofurgo" gisa homologatuta dagoela adierazten duen dokumentua.
 - Erantzukizunpeko adierazpen sinatua, higie eta osasun arrisku guztiak bere gain hartzen dituen eta Donostia Sustapenak edozein erantzukizunetatik salbuesten duena.
 - Ibilgailuaren argazkiak eta ibilgailuari buruzko dokumentazioa.
 - ❖ Memoriaren Eranskina behar bezala beteta.
 - ❖ Argazkiak: produktuen argazkiak eta standean duten antolaketa. Argazki dokumentuek jpg edo pdf formatuetan egon beharko dute, eta ezin izango dute 5 Mb-ko pisua gainditu.
 - ❖ Enpresak Donostian zerga-egoitza duela edo hirian establezimendu fisiko bat duela egiaztatzeko, Gipuzkoako enpresen kasuan, Donostiako Sustapenak zuzenean lortuko du Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoaren (altak, bajak, aldaketak, jarduera-epigrafeak) egiaztagiria.
- Eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari; kasu horretan, aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu.
- Enpresa eskatzailearen historiala/jarduera ekonomikoen dokumentu eguneratua, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalia.

Eskaerek jarduerarako eskatzen diren premia espezifikoetarako buruzko informazio zehatza jasoko dute, antolakundeak hori dena balioetsi ahal izan dezan, egokitasunari eta bideragarritasunari dagokienez.

7. ESKABIDEEN AKATSAK ZUZENTZEA

Eskabidea erregistratzeko unean, eskabidearen inprimakia eta oinarri hauetan eskatutako dokumentazioa erantsi beharko dira.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, egiaztatzen bada eskabide hori ez dagoela osorik beteta, edo ez dela dagokion dokumentazioa aurkeztu, pertsona edo erakunde eskatzaileari errekerimendu bat egingo zaio, hiru egun balioduneko epean (zuzenketa jakinarazten denetik) akatsa zuzen dezan edo nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; hala egin ezik, eskabide hori baztertu egingo da, izapide gehiagorik gabe, eta horrenbestez, horri buruzko ebazpena emango da.



Donostia Sustapenak argibideak eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo.

8. ESKABIDEEN PROZEDURA ETA BALORAZIOA.

Erakusketarien esleipena norgehiagoka printzipioen arabera egingo da. Ebaluazioa egin ondoren puntuaziorik handiena lortzen duten eskabideei esleituko zaie etxolen ustiapena, atal honetan azaltzen diren irizpideekin bat eginik. Itxarote zerrenda bat osatu ahal izango da puntuaziorik handieneko eskaerekin, baldin eta Gabonetako Merkatuan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Produktu kategoria bakoitzerako, erakusketarien ehuneko hau kalkulatu da (etxolak eta food truckak) guztizkoaren gainean:

- ❖ I. TALDEA: **Gabonetako Elikagai Tipikoak:** % 35
- ❖ II. TALDEA: **Haurrentzako jostailuak eta opariak:** % 15
- ❖ III. TALDEA: **Gabonetako opariak eta eskulangintza:** % 35
- ❖ IV. TALDEA: **Gabonetako dekorazioa:** % 15

Ehuneko horiek gutxi gorabeherakoak dira, eta nolanahi ere, Donostia Sustapenak ehuneko horiek aldatzeko eskubidea izango du.

Erakusketarien hautaketa irizpide hauen arabera egingo da honako kategoria hauetako bakoitzerako:

Hona hemen horietako bakoitzerako balorazio irizpideak:

I. TALDEA: **Gabonetako Elikagai Tipikoak:**

- **Bertan egindako produktuak:** erakusketariak berak egindako produktuen eskaintza baloratuko da.
Gehienez 20 puntu.
- **Tokiko elikagaiak edo/eta hornitzaileak:** EAEko eta Ipar Euskal Herriko elikagaien kultura eta tradizioaren erabilera baloratuko dira.
Gehienez 10 puntu.
- **Eskaintzaren aniztasuna eta egokitasuna:** Gabonetako Merkatuan saldu beharreko produktuen aniztasuna eta egokitasuna baloratuko dira.
Gehienez 15 puntu.



Produktuen erakusketa eta antolaketa: salmenta-postuan produktuen erakusketa zaintzea, txukun aurkeztea eta zehaztea baloratuko da. Food trucken kasuan, food truckaren kanpoaldeko eta barrualdeko estetika baloratuko da.

Gehienez 20 puntu.

- **Produktu ekologikoak eta elikagaiekiko intolerantziara egokituak:** produktu ekologikoen eta elikagaiekiko intolerantziara egokitutako produktuen eskaintza baloratuko da.

Gehienez 10 puntu.

- **Material ekologikoak:** produktuak saltzeko eta kontsumitzeko material ekologikoen eta ez-kutsatzaileen erabilera baloratuko da.

Gehienez 10 puntu.

- **JEZ Donostia - San Sebastián hirian:** JEZ Donostian duten jarduerak baloratuko dira.

Gehienez 5 puntu.

- **Establezimendu fisiko bat Donostian izatea:** eskatzaileak Donostia hirian saltoki fisiko bat izatea baloratuko da.

Gehienez 5 puntu.

- **Postua edo merkatua dinamizatzeko jardueri buruzko proposamena:** baloratu egingo da eskatzaileak dinamizazio jardueri buruzko proposamen zehatzak aurkeztea, bai bere postuan bai horretarako prestatutako merkatuaren arloan egin beharrekoak.

Gehienez 5 puntu.

II., III. eta IV. TALDEA: **Haurrentzako jostailuak eta opariak; opari artikulak; eta Gabonetako dekorazioa:**

- **Produktuaren originaltasuna, kalitatea eta iraunkortasuna:** produktuen kalitatea baloratuko da diseinuaren, kalitatearen eta materialen arabera. Gehienez 30 puntu.

- **Produktuen erakusketa eta antolaketa:** salmenta-postuan produktuen erakusketa zaintzea, txukun aurkeztea eta zehaztea baloratuko da. Era berean, aurreikusitako postuaren barne dekorazioa baloratuko da.

Gehienez 20 puntu.

- **Produktuen aniztasuna:** produktuen eskaintzaren barietatea baloratuko da.

Gehienez 15 puntu.

- **Gabon izaera:** Gabonetan kontsumitu ohi diren produktuen eskaintza baloratuko da.

Gehienez 20 puntu.

- **JEZ Donostia – San Sebastián hirian:** JEZ Donostian duten jarduerak baloratuko dira.

Gehienez 5 puntu.



- **Establezimendu fisiko bat Donostian izatea:** eskatzaileak Donostia hirian saltoki fisiko bat izatea baloratuko da.
Gehienez 5 puntu.
- **Postua edo merkatua dinamizatzeko jardueri buruzko proposamena:** baloratu egingo da eskatzaileak dinamizazio jardueri buruzko proposamen zehatzak aurkeztea, bai bere postuan bai horretarako prestatutako merkatuaren arloan egin beharrekoak.
Gehienez 5 puntu.

Jasotako eskabideak gehienez 100 puntuko oinarri baten arabera ebaluatuko dira.

Eskaera-kopurua salmenta-jarduera egiteko eskuragarri dauden postuen kopurua baino handiagoa bada, postuak modu korrelatiboan esleituko dira, talde bakoitzak Gabonetako Merkatuko erakusketariak guztizkoaren gainean duen partaidetza-ehunekoak kontuan hartuta eta lehen aipatutako irizpideen arabera lortutako puntuazioan oinarrituta. Esleitu gabe geratu diren postuekin, gehienez 10 eskabideko erreserba bat eratu ahal izango da, betiere merkatuan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Donostia Sustapenak **2022ko urriaren 4a** baino lehen emandako berariazko ebazpenaren bidez emango da edo ukatuko da etxola ustiatzeko esleipena. Nolanahi ere, Donostia Sustapenak eskubidea izango du epe hori luzatzeko.

Gabonetako Merkatuan parte hartzeko aukeratutako eskabideen zerrenda www.donostiagabonetakoazoka.eus webgunean argitaratuko da.

Aukeratuek onarpen ebazpena jasoko dute Gabonetako Merkatuan parte hartzeko kontratuarekin batera, eta 10 eguneko epean gehienez (ebazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita), honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- ❖ Sinatutako kontratua
- ❖ Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria. Gipuzkoako enpresen kasuan, Donostiako Sustapenak zuzenean lortuko du Gipuzkoako Foru Ogasunak emandako jarduera ekonomikoen gaineko zergaren historikoaren (altak, bajak, aldaketak, jarduera-epigrafeak) egiaztagiria.

Eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka Donostia Sustapenak datu horiek kontsultatzeari; kasu horretan, aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua) eta, hala badagokio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu.

- Enpresa eskatzailearen historiala/jarduera ekonomikoen dokumentu eguneratua, Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalia.



- ❖ Jardueraren ondoriozko erreklamazioak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruaren azken ordainagiriaren kopia, baimendutako aldirako produktuen ondoriozko erantzukizuna barne; kalte ordainaren muga ez da 150.000 eurotik beherakoa izango.
- ❖ Fidantzaren ordainketaren eta etxolaren alokairuaren zenbateko osoaren kopia (estra guztiak barne, egonez gero).

Aurrekoa gorabehera, erakundeak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein informazio edo dokumentazio osagarri eskatu ahal izango dio eskatzaileari, emandako datuak egiaztatzeko.

Dokumentazioa aurkezteko epeak betetzen ez badira, eskabidea bertan behera geratu dela ulertuko da, Donostia Sustapenak aurkezpen epea luzatzea baimendu ezik (interesdunak arrazoi justifikatuengatik hala eskatuta).

9. ETXOLEN ETA FOOD TRUCKEN ERAKUSKETARIEN BETEBEHARRAK

- Erakusketariak zerga-betebeharrak egunean izan beharko ditu, eta kasu bakoitzean aintzat hartu beharreko lan araudia bete beharko du.
- Postuaz pertsonalki arduratuko den pertsonak kasu bakoitzean aplikatzekoak diren elikagaien higiene eta segurtasun baldintzak bete beharko ditu. Pertsona bat baino gehiago egonez gero, guztiek bete beharko dituzte elikagaien higiene eta segurtasun baldintzak.
- Erakusketariak zorrotz bete beharko ditu agintari sanitarioek COVID-19a prebenitzeko emandako arau eta protokolo guztiak; are gehiago, etorkizunean ager daitezkeen arau eta protokoloetara egokitze prest egon beharko du, bai bere lanari datzekion jarduketetan bai kontsumo eremuan.
- Esleitutako instalazioa eskaeran adierazitako xederako baino ez da erabiliko.
- Donostia Sustapenak Gabonetako Merkatuan etxola bat edo Food truck bat okupatzeko ezarritako zenbatekoa ordaindu behar du erakusketariak.
- Ezin da inola ere etxolaren egitura kaltetu edo bertan iltzatu ezer. Etxolaren egiturari ezin izango zaio aldaketarik eragiten duen elementurik erantsi (oihalak, mahaia, bankuak, etab.).
- Etxoletan ezin izango da instalatu sukalderik, hotz ganberarik, berogailurik, argiztapen elementurik edota berariaz baimendutakoa baino elektrizitate hornidura handiagoa kontsumitzen duen beste



edozein elementu; orobat ere izan izango dute erabili PGL motako erregairik (butanoa, propanoa, e.a.). Debeku hau postuen barrualderako zein kanpoalderako egongo da indarrean.

- H) Ezin izango da inolako sorgailurik erabili, Donostia Sustapenaren berariazko baimenarekin izan ezik.
- I) Jendaurrean jarriko diren kartel guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira.
- J) Zoladura kaltetu dezakeen ainguraketarik ezin da erabili.
- K) Salmenta-baimenak ezin zaizkie hirugarrenei laga, saldu edo azpierrean eman, baimenak pertsonalak eta besterezinak direlako.
- L) Saltzaileak beti egongo dira beren postuetan, eta ezin dira postuen inguruan saltzen ibili.
- M) Salmenta-jarduera egiteko baimenak zehaztutakoa baino leku gehiago ezin da okupatu; inola ere ez da baimenduko aurreko edo alboko korridoreak okupatzea salgaiak erakusteko.
- N) Instalazioek, azalera baimenduak eta inguruek segurtasun, garbitasun, txukuntasun, osasungarritasun eta higiene egoera ezin hobean mantenduko dira beti, bai okupazio ordutegiaren barruan bai ordutegitik kanpo. Erakusketariaren ardura izango da zorua eta postuaren 10 metroko perimetroa garbi edukitzea (postuaren inguru guztian).
- O) Ezin izango da kozinatu, postutik kanpo usainik ez sortzeko.
- P) Beira erabiliz gero, dagozkion edukiontzietan bota beharko da. Ezin izango da kristalezko edalontzirik erabili.
- Q) Edariak saltzen dituzten erakusketariak edalontzi berrerabilgarriak edo/eta konpostagarriak erabili beharko dituzte nahitaez.
- R) Olio ontziratua baino ez da erabiliko.
- S) Zoladurara ezin izango da isurpenik egin (olioa, koipea edo beste edozer).
- T) Oro har, elikagaiak manipulatzeko dituzten erakusketarien kasuan, horrelako jardueretarako indarrean dagoen osasun, ingurumen eta segurtasun araudia bete beharko dute.



- U) Donostia Sustapenak Gabonetako Merkatuan parte hartzeko ezarritako ordutegia betetzea nahitaezkoa da.
- V) Behin okupazioa amaituta, bide publikoa utzi beharko da erabat irekita eta okupazioaren aurretik zegoen bezalaxe; era berean, baimena eskatzean agerian ez zegoen kalterik dagoenik ezin izango da alegatu.
- W) Kanpoaldean ezin izango da inolako publizitaterik, propagandarik, kartelik eta abarrik jarri, eta megafonia indibiduala debekatuta egongo da salmenta-postuetan.
- X) Artisau elikagaiak saltzeko instalazio baimenduek, higiene eta elikadura baldintzak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteko baldintzak arautzen dituen araudi orokorrean jasotako xedapenak bete beharko dituzte.
- Y) Baimena lortu ondoren, titularrak, hala eskatuz gero, aseguru etxearen jatorrizko ziurtagiria aurkeztu beharko du, indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru poliza bat badagoela egiaztatzeko; polizak, garatu beharreko jardueraren ondoriozko erreklamazio posibleak estali beharko ditu, eta, hala badagokio, produktuen edota elikagai intoxikazioaren ondoriozko erantzukizuna barne hartuko du baimentzen den aldirako.
- Z) Ikuskaritzako udal langileek edo/eta segurtasun agenteek eskatuta, baimenaren titularrak edozein unetan erakutsi beharko ditu lortutako baimena eta bere nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa.
- AA) Era berean, errespetatu egin beharko dira Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen edukia eta Adikzioen eta Droga Mendekotasunaren gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen edukia. Erabat debekatuta dago 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea. Postuaren barruko edari zerbitzuan parte hartzen duten guztiek 18 urtetik gorakoak izan beharko dute.

10. KONTRATUAREN SUNTSIARAZPENA.

Kontratua suntsiarazteko arrazoi izan daitezke, besteak beste, honako arrazoi hauetako edozein:

- Titularrak uko egitea. Uko egite honek 600,00 euroko zigorra ekarriko du berekin, kontratua sinatu ondoren eta Merkatua hasi baino lehen egiten bada.



- Parte hartzeko oinarri hauetan ezarritako betekizun edo betebeharetako edozein ez betetzea. Ez-betetze honek 600,00 euroko zigorra ekarriko du berekin, Donostia Sustapenak ez-betetze horren ondorioz erreklamatu ditzakeen kalte-galerez gain.
- Titularraren heriotza.
- Baimena lortzeko eta mantentzeko eskatutako baldintza guztiak edo batzuk galtzea. Ez-betetze honek 600,00 euroko zigorra ekarriko du berekin, Donostia Sustapenak baldintza-galera horren ondorioz erreklamatu ditzakeen kalte-galerez gain.
- Oinarri hauetan eta kontratuan bertan ezarritako baldintzak ez betetzea. Baldintza horiek ez betetzeak 600,00 euroko zigorra ekarriko du berekin, Donostia Sustapenak ez-betetze horren ondorioz erreklamatu ditzakeen kalte-galerez gain.
- Gabonetako Merkatua bertan behera uztea ezinbesteko arrazoiengatik.
- Gabonetako Merkatua bertan behera uztea herritarren segurtasunarekin eta interes publikoko kontuekin lotutako arrazoiengatik.

Honelako kasuetan, Donostia Sustapenak kontratuak suntsiarazi ahal izango ditu, horrek erakusketarien aldeko kalte-ordainik edo konpentsaziorik sortu gabe.

Merkatua inauguraziorako aurreikusitako eguna baino lehen bertan behera utziz gero, Donostia Sustapenak erakusketari bakoitzak ordaindutako zenbatekoaren % 100 itzuliko du. Era berean, Merkatua hasi ondoren bertan behera uzten bada, gozatu gabeko egunei dagokien zati proportzionala itzuliko du Donostia Sustapenak.

11. DATUEN BABESA

Jarduera honen barruan bildutako eta sortutako datu pertsonalak Donostia Sustapenak kudeatuko ditu, enpresa-proiektuak babesteko eta bultzatzeko edota enpresei eta pertsona autonomoei zuzendutako zerbitzuak eman ahal izateko. Horretarako, eskatzen diren eta sortzen diren datu pertsonalak behar-beharrezkoak dira, datu horiek gabe zerbitzu hau ezin izango litzatekeelako eman.

Emandako izaera pertsonaleko datuetan aldaketarik gertatuz gero, titularrak horren berri eman beharko dio Donostia Sustapenari; edozein kasutan ere, titularrak uanean-uanean emandako datuen egiazkotasunaren eta zehaztasunaren erantzukizuna izango du. Hirugarrenen datuak emanez gero, eskatzaileak datu horien titularren baimena izan beharko du aipatutako datuak jakinarazi ahal izateko. Datu horiek tratatzeko arduraduna Donostiako Udala da, eta Donostia Sustapena arduratzen da datuak tratatzea, zerbitzuaren kudeatzailea den aldetik.

Donostia Sustapenak kudeatutako datu pertsonalak tratatzeko gaitzen duen titulu juridikoa Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorren 6. artikuluan jasotako interes publikoa da.



Datuak hirugarrenei lagako zaizkie, legezko betebeharrak betetzeko edo kanpoko hornitzaileek zerbitzuari eusteko behar izanez gero.

Ezarritako kontratuaren arabera, datuak gorde egingo dira zerbitzuak irauten duen bitartean, baita bost urte geroago ere (zerga-araudian ezarritakoa betez). Datu pertsonalen tratamenduari buruzko eskubideak Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan erabil daitezke (Ijente kalea 1, 2003).

Ondorio horietarako, jasota uzten da, ezen, dagokion eskabidea aurkezturik, datu pertsonalen tratamenduaren berri ematen zaiola eskatzaileari, aurreko paragrafoetan adierazitakoaren arabera.

12. AZKEN XEDAPENA.

Oinarri hauek Donostia Sustapenaren webgunean argitaratuko dira, eta bertan argitaratzen diren egunean jarriko dira egunean. Interesdunek eskabidea aurkezteak esan nahi du Oinarri hauek erabat onartzen dituztela; eta horren ondorioz, Gabonetako Merkatuaren arau espezifikoak eta merkatua bera behar bezala garatzeari begira, Erakundeak ezar ditzakeen xedapen zehatzak onartzeko eta obeditzeko konpromisoa hartzen du eskatzaileak.

Aukeratutako pertsona edo enpresa izango da aurkeztutako dokumentazio guztia egiazkoa izatearen erantzule bakarra, bai eta jarduketen ondorioz sortzen diren kalte pertsonal edo/eta material guztien erantzule ere (jarduera egin aurreko edo/eta ondorengo jarduketen kasuan barne); horrenbestez, Donostia Sustapenak ez du kontzeptu honengatiko erantzukizunik izango.

Donostia, 2022ko ekainaren 14a

Iñigo Olaizola Arcaute

Donostia Sustapena, S.A.ko Gerentea



I. ERANSKINA: ETXOLEN KOSTUAREN BANAKAPEN EKONOMIKOA

Jarraian, etxola bakoitzaren kostuak zehazten dira:

SARREREN ETA GASTUEN ZERRENDA ERAKUSKETARI BAKOITZEKO		
	ETXOLA (3X2M)	ETXOLA (4X2M)
ERAKUSKETARI BAKOITZAK ORDAINDU BEHARREKO ZENBATEKOA	1.400,00 €	2.050,00 €
ZUZENEKO KOSTUAK ERAKUSKETARI BAKOITZEKO: - etxola - instalazio elektrikoa eta argiaren gastua - segurtasun zerbitzua - erakusketariei Merkatuan laguntzeko zerbitzua	3.410,00 €	3.785,00 €
DONOSTIA SUSTAPENAREN DIRULAGUNTZA (SUSTAPENAK BERE GAIN HARTZEN DUEN ZENBATEKOA ERAKUSKETARI BAKOITZEKO)	2.010,00 €	1.735,00 €

Oharrak: Zuzeneko gastuetan ez daude egotzita Sustapenaren zerrenda honetan jasotako gastuak: komunikazioa, garbiketa, zuzendaritza teknikoa, aisialdiko agenda, merkatuko gainerako ekipamendua eta azpiegiturak, seinaletika, etab.



II. ERANSKINA: 2 ETXOLA-EREDUEN DESKRIBAPENA

1. Kiosko modeloa (etxola txikia): 6m². Neurriak: 3 x 2 m.
2. Kiosko modeloa (etxola handia): 8m². Neurriak: 4 x 2 m.

Bi ereduek honako neurri orokor hauek izango dituzte:

- Alboko altuera: 2.05 m
- Altuera zentrala: 2.70 m

Bi ereduek elementu hauek dituzte:

- Ate 1 atzealdean, egur trinkoz egina eta sarrailaduna
- Aurreko irekiera 1, erakusmahai eta leihatila baskulatzailarekin (800 N-ko sistema hidraulikoa eta sarraila).
- Alboko 2 irekiera, erakusmahai eta leihatila baskulatzailarekin (600 N-ko sistema hidraulikoa eta sarraila).

Egoera klimatologiko txarren aurrean etxolen prestazioa hobetzeko, aurreko erakusmahaia kentzeko aukera eskaintzen da, parte hartzaile bakoitzak eskatuta.

Bi modeloetan, barrualdea espazio bakar batek osatzen du, eta honako akaberak ditu:
acabados:



- Okumezko zoladura, 22 mm-koa.
- Okumezko taula batez babestutako sabaia.
- Lasur berniz bidezko akabera.


Zuzen funtzionatu dezan, instalazio elektriko bat du, honako elementuak dituena: aginte eta babes koadro orokor bat, fluoreszente batez osatutako argiztapen puntu bat eta 16A-ko hiru enfutxe.




Planoak eta xehetasun fotografikoa:

Neurriak:









Xehetasun fotografikoa:



(bi etxola batzen dituen eredua)



Barnealdea:



Orrialdea 28 | 28